



First Pich

2022. KREA BIDASOA

JARDUERA HAU APIRILAREN 7AN, OSTEGUNA, BURUTUKO DA KREA BIDASOA AMAIERA GISA. INGURUKO ENPRESEK EDO EKIMENEK BEREN PROIEKTU-IDEIAK, SORMEN-ENPRESAK, EGIN DITUZTEN LANAK EDO IZAN DUTEN IBILBIDEA AURKEZTEKO AUKERA IZANGO DUTE. TENIDO.

¡EMAN IZENA
OTSAILAREN
21 BAINO
LEHEN!
(14:00AK
ARTE)

PARTE HARTZEKO INTERESA BADUZU:

FIRST PICH BIDASOAN

Enpresen eta ekimenen aurkezpenak KREA Bidasoaren esparruan sortu ziren 2012an, eskualdeko enpresek eta pertsona ekintzaileek beren proiektuak eta lanak jendaurrean aurkezteko aukera izan zezaten formatu erraz, azkar eta oso bisualean. Mota guztietako proiektuak aurkezteko erabiltzen da formatu hau: sortu berri diren enpresak, herritarren ekimen berriak, bidaia inspiratzaileak, kezkak edo hausnarketak, sukaldaritzako errezetak, etab. Ez dago adin mugarik, ezta hitz egiteko eduki zehatzik ere, partekatzeko zerbait duen orok, inspiratzeko eta hunkitzeko moduko zerbaitek, lekua dauka KREA Bidasoan.

Ekimen informala da, dibertigarria, ideiak eta gogoetak partekatzeko sortzaileen biltokia. Beren lana jendaurrean erakutsi nahi duten baina komunikabide masiboetarako sarbiderik ez duten gazteentzako aukera da, irakatsi beharreko obra duten baina galeria bat betetzeko nahikoa ez den artistentzako aukera. Azken finean, plataforma ezin hobea bere lana erakzteko eta publikoarekin partekatzeko.

Formatuak ideia simple bat du oinarrian: 20 irudi x 20 segundu.

Partehartzaile bakoitzak 20 irudi proposatzen ditu, bakoitza 20 segundoz proiektatzen da eta horien gainean bere aurkezpena egiten du.

Formatu honi esker, aurkezpen erakargarri, zehatz eta normalean, dibertigarriak egiten ahal dira.

Jar zaietez harremanetan Bidasoa bizirik-ekin:

Tel: 943 50 96 00 // 943 50 95 84

E-maila: ekintzailtza@bidasoa-activa.com
eta bidali ondorengo datuak:

- Harremanetarako izena.
- E-maila eta telefonoa.
- Proiektuaren izena.
- Proiektuaren deskribapen laburra eta ikuspuntua.
- Aurkezpenaren hizkuntza.

**Otsailaren 23an jakinaraziko dugu zeintzuk diren KREA Bidaso 2022.ean aurkeztu ahal izango diren proiektuak. Hautatutako pertsonen argibideak emango zaizkie 20 irudiak bidaltzeko eta aurkezpenak prestatzeko. (Hautatutako pertsonen bilera baterako deia egingo zaie martxoaren 2rako.)*

AURKEZPENETARAKO ZENBAIT IDEIA

Enpresa sortu berri bat aurkeztea, enpresa baten ibilbidea eta egindako lanak aurkeztea, norberak sortutako artelanak aurkeztea, laguntza behar duen herritar-ekimen bat aurkeztea, beste sormen-enpresa batzuentzat baliagarriak izan daitezkeen esperientziak edo hausnarketak aurkeztea, etab.

Modu positiboan baloratuko dira proiektu edo ikuspegi sortzaile, berritzaile edo harrigarria duten proposamenak.